

Liburuak

KRITIKA

Haritzaren azalera zehatza.
Aristides Vargas (Itzulpena: Uxue Alberdi).
Erein. 80 orrialde. 9 euro.

Helduen literatura
Amaia Alvarez Uria



Nor gara gu? Zer gara gu?

Azala eta mamia

Liburu honen kontrazalera bagoaz informazio bila hurrengo irakurriko dugu: Norberaren identitatea osatzen duen kulturaren mundura eginiko hastapen bidaia da... garena onartzea inolako ziurtasunik izan gabe. Beraz, badirudi “nor naiz” galderari “hemen” eta “orain” gehitu behar dizkiogula lan honek proposatzen digun moduan, pertsona bakoitza bere kulturaren kumea dela esatera baitator lan hau.

Protagonista neskaitsu bat da, Saioa, hirira joango da trenez bera nor den jakitera eta badela nor jakitera. Bertan, pertsona batzuekin egingo du topo eta ondorio batzuk aterako ditu. “Euriak bustitako azalera bat naiz” izango da azkenean, bidaia horrek erakutsiko diona. Inguruaren eraginari buruzko gogoeta baino gehiago da antzezlan hau, ordea. Gauzen azalera ezagutu nahi du Saioak, bere eskuekin euren sentimenduak ukitzeko, pertsonak ikusteko, bere burua ezagutzeko.

Testutik taulara

Protagonistak bere etxeko leihoa atzean utziko du, bere mugetatik kanpo aterako da, kanpoko eta aldi berean barruko mundua(k) arakatzen joateko. Lan hau ere, bere mugetatik kanpo ateratzen da, literatur testu bat izanik antzerki lan bat ere badelako, eta gutxienez, hiru egile dituelako gure eskuetara heltzen denean: lana idatzi eta antzezlan zuzentzen duena: Aristides Vargas; idazlana euskaratu duena: Uxue Alberdi; eta lana iazko otsailetik han eta hemen antzeztan ari dena: Kukubiltxo taldea.


Aristides Vargas argentinarrak hiriko kaleetan barna gure barrurako bidaia egitea proposatzen digu; Uxue Alberdik mimoz idatzitako poema handi bat bezala irudikatzen du; eta Kukubiltxo taldeak bere 30. urteurrena ospatzeko, helduentzako euren lehenengo lana egiteko, aukeratu du antzezlan hau.

Gonbidapena

Testu aberats eta iradokitzaile honek irakurketa desberdinak ahalbidetzen dituen gonbidatu nahi zaituztet horretan murgiltzera eta zuen irakurketa egitera. Uxue Alberdiren irakurketa eta Kukubiltxo antzerki taldearen ezagutzeko liburu eskuratu edo antzezlan ikusi besterik ez duzue egin behar (antzezlanaren irudi batzuk antzerki talde honen webgunean daukazue eta martxoaren amaieran Leioan edo Eibarren daukazue ikusteko aukera). Beraz, literaturaren eta antzerkiaren xarma eta liluraz gozatzeko jarri zaitezte, amatur telefono mugikorrak, piztu linterna, erantzi zapatak eta igo dezatela oihala. ■

Alexander Tapiaren omenezko liburua

2007an bete ziren 50 urte Alexander Tapia Perurena poeta hil zenetik. Hori dela-eta, urte hartako maiatzaren 3tik 10era bitartean Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak jardunaldiak antolatuz zituzten, Tapiaren lanak gogora ekartzeko. Jardunaldi haietako aktak dira orain argitaratzen direnak, *Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria. 50 urte izeneko* liburua.



Alexander Tapia Perurena...
Batzuen artean.
Iruñeko Udala.
270 orrialde.
10 euro.

Idazlearen obraz hitz egin zutenen artean, besteak beste, Angel Erro, Juanjo Lasagarré, Maite Laka, Josetxo Azkona eta Aintzane Galardi daude. Gainera, zenbait obra-tartean, Joxemiel Bidadorrek apailatuta, Tapiaren 21 poema argitaragabe bildu dituzte edizio zainduko liburu honetan, baita idazlearen bibliografia osoa ere. ■

“Egia” kontzeptuaz gogoetak Hemen-en

Hemen erlijio gogoetarako aldizkariaren 2008ko azken zenbakia duzu hau, urria-abendua hiruhilekoari dagokiona. Aldizkari gai nagusia galdera bat da: nork du egia? Bizi dugun garai honetan erantzun gaitzeko itauna inondik ere. Hala ere ez dira kokildu *Hemenek* zenbaki honetako orrietara ekarri dituen gonbidatuak: Jesus Mari Aizpuruak, Daniel Innerarityk, Ramon Irizarrek, Joxe Arregik, Joxerra Garziak, Juan Kruz Igerabidek eta Manuel Egigurenek, bakoitzak bere talaia, egiaren kontzeptuari buruzko ideia mamitsuak plazaratu dituzte. Horrez gain, aldizkariak Manuel Egigureni egindako elkarrizketa dakar *Lekukoak* sailean, baita liburu eskaintako tartea ere. ■



Hemen 20.
Batzuen artean.
Frontera.
102 orrialde.
28 euro (urteko harpidetza).